

FUNTSEZKO JARDUERAK


Lehiaketa:

Urtero geure enpresak lehiaketa bat egingo du. Lehiaketa honetan Espainako eta Kanariar uharteko disenugileei erronka bat aurkeztuko diegu, geure lepokoaren diseinu berri bat egitea. Lehiaketa hau egiteko instagramen bidez argitaratuko dugu, horrela gazte gehiagoei helduko die berria.

Gure lehiaketa Sei faseetan emango da:

1. Parte hartzeko epe-muga bat jarriko dugu.
2. Instagramen bidez publikazio bat egingo dugu disenugile ezagutzeko nola integratu beharko dute gure gailua lepokoari.
3. Beste epe muga bat jarriko dugu diseinua entregatzeko.
4. Behin lehiaketa amaituta geuk aukeratuko dugu bost diseinu.
5. Diseinu hauek geure kontuan publikatuko ditugu eta ahalmena emango diegu jendeari bozkatzeko.
6. Azkenean irabazlea aldarrikatuko dugu eta bere diseinua salduko dugu geure dendetan.

Lehiaketa honekin geure produktuaren gako inportanteenetako bat azpimarratu nahi dugu, garrantzitsua da segurtasuna baina ere estetika bilatu nahi dugu. Azkenean produktu bat begietatik sartu behar da, orduan formarik hoberena da diseinu paregabeak emanez lortu nahi dugu.



Hitzaldiak:

Segurtasuna gako inportanteena da gure produktuan, azkenean bilatu nahi duguna da pertsonen segurtasuna. Horregatik polizia lokalarekin hitz egingo dugu, proposamen hau emanez: Ikastetxeetara joatea poliziarekin segurtasun hitzaldiak emanez.

Orduan gure produktua aurkeztu ahal diegu generazio berriei, horrela kontzientziatuko dira beraien segurtasuna beti lehetasunezkoa izan behar dela. Horrela poliziarekin batuko gara biok batera ikastetxez-ikastetxez joateko hitzaldiak emanez eta gure produktua aurkezten.

Hitzaldi hauetan emango diegu umeei eta gazteei gure produktua probatzeko eta geure produktua erabiltzeko hainbat eszenario aurkesten beraiek ikusteko bere erabilera.

Segurtasun arloan lan egiten den empresa garenez, uste dugu, poliziaren laguntza beharrezkoa dela. Azkenean gure herrialdean beraiek bermatu ahal dute herritarren segurtasuna orduan ezin hobeko laguntza da hori lortzeko.

